

Eliza katolikoaren esparruko sexu-abusuei eta botere publikoen rolari buruzko txostena

BEHARREZKO ERANTZUNA

LABURPEN

Eliza katolikoaren esparruko sexu-abusuei eta
botere publikoen rolari buruzko txostena

LABURPEN



Eliza katolikoaren esparruko sexu-abusuei eta
botere publikoen rolari buruzko txostena

BEHARREZKO ERANTZUNA

LABURPEN

Urri, 2023

Laburpen honen aurkibidea

Aurkezpena. Beharrezko erantzuna.	4
Aholku Batzordearen lanaren planteamendu orokorra eta txostena egitea.....	6
<i>Aholku Batzordea — Biktimei Laguntzeko Unitatea — Elkarteen foroa — Informazio bilketa — Elizaren erantzuna</i>	
Arazoa aitortzea.....	10
Arazoaren dimentsioa.....	11
<i>Inkesta demoskopikoa</i>	
Arazoa ulertzea.....	13
<i>Biktimei Laguntzeko Unitateak jasotako lekukotzak – Abusuen ondorioak</i>	
Elizaren erantzuna abusuen arazoaren aurrean.....	17
Botere publikoen erantzuna.....	19
<i>Erreparazioa — Hezkuntza arloa</i>	
Prebenitzeko eta konpontzeko beharra.....	22
<i>Botere publikoen zeregina — Erreparazio-betebeharra – Konpentsazio ekonomikoa</i>	
Erantzukizuna bere gain hartzea.....	25
Gomendioak.....	26

Aurkezpena Beharrezko erantzuna

Txosten hau (honako hau laburpen txiki bat da) Diputatuen Kongresuak 2022ko martxoaren 10ean Herriaren Defendatzaileari egindako aginduaren emaitza da; izan ere, horrela onartu zuen hainbat legebiltzar-taldek alde zuzenetik aurkeztutako lege besteko proposamen batean (LBP). Zehazki, honela: «Diputatuen Kongresuak Herriaren Defendatzaileari, Gorte Nagusiek oinarritzko eskubideak defendatzeko izendatutako goi-komisarioari, agindu dio bera buru izango duen Batzorde independentea eratzeko, bera buru dela, Eliza Katolikoaren esparruan sexu-abusuen salaketari eta botere publikoen rolar buruzko txostena prestatzea».

Beharrezkoa da urtetan zehar isiltasun bidegabe batek estali duen sufrimendu- eta bakardade-egoerari erantzuna ematea.

Esan daiteke gertatu denak isiltasun hori izan duela, hori saihesteko gehiago edo beste modu batean egin zezaketenen isiltasuna. Azpimarratzen da ez dela egia denek zekitenik, baina ez da egia ere inork ere ez zekienik.

Herritarrek adierazitako behar sozial, etiko eta politiko bati erantzuten dio txosten honek. Aldi berean, eta hori da erabakigarria, sexu-abusuen biktimek eskatzen dutenari erantzuten dio. Hasteko, entzunak eta artatuak izan behar dira eta ordaina jaso behar dute. Haiek dira txosten honen lehenengo zentzua, azken zentzua eta zentzu nagusia.

Txosten honen azken helburua erantzukizuna bere gain hartzea da, eta horrek eskatzen du *horren gainean erantzutea*, *horren aurrean erantzutea* eta *horri erantzutea*. Eta beharrezko erantzun horrek eskatzen du txosten hau lagungarri izatea gaiaz are gehiago jabetzen, bai eta biktimei benetan erantzun bat ematen, hain zuzen ere haiek eta gizarteak arrazoi egokiekin eskatutako erantzuna.

Zalantzarik gabe, arazo hau eskandalagarria da. Hala da, eta are gehiago izango litzateke gaur egun gertatutakoari heldu nahi ez izatea, pertsona jakin batzuen edo herritarren sektore jakin batzuen sinesmenei lotutako uste, balio edo printzipioei kalte egin dakiekeela gaizki ulertutako kontzientzian babestuta.

Hala ere, badirudi dagoeneko finkatu dela, baita eremu horietako askotan ere, gertatutakoa jakitearen eskandalua saihesten saiatzeak kalte handiagoa eragingo lukeela, eskandalurik handiena, isildutakoaren eskandalua, ondorio instituzional larriak eta aurreikusi ezinak izango lituzkeena. Eta, jakina, pertsonalak. Orduan, gizarte-kontzientziak, arrazoi onekin, benetako gizarte-iritzia finkatuko luke.

Izan ere, beti izan behar dira kontuan biktimak, eta beste edozein iritziren aurretik jarri behar dira. Erantzun egin behar da.

Ángel Gabilondo Pujol
Defensor del Pueblo

Aholku Batzordearen lanaren planteamendu orokorra eta txostena egitea

Txostena Diputatuen Kongresuak Herriaren Defendatzaileari emandako agindutik eta hura betetzeko sortutako Aholku Batzordearen lanetik abiatzen da, 2022ko uztailetik 2023ko irailera bitartean.

Aholku Batzordea

2022ko uztailaren 5ean, Eliza katolikoaren eremuan sexu-abusuen biktimei laguntzeko eta botere publikoen zereginerako Aholku Batzordea eratu zen.

Herriaren Defendatzailearen ustez, batzorde horrek independentea, irekia eta plurala izateaz gain, ordezkatzen duen gizartearen beraren isla ere izan behar zuen, ez ideologikoki ez beste inolako zentzutan lerratua izango ez zen txosten bat lortzeko. Beren lanean eta diziplinan akreditatutako pertsonak biltzen saiatu ziren. Bere osaera hemen kontsulta dezakezu:

<https://www.defensordelpueblo.es/comision-asesora-atencion-victimas/>

Biktimei Laguntzeko Unitatea

Eliza katolikoaren eremuko abusuen biktimei laguntzeko unitatea 2022ko uztailaren 5ean sortu zen, eta hurrengo egunean ekin zion lanari. Unitate honen helburua Elizaren eremuan egindako abusuen lekukotzak jasotzea izan da. Lekukotzak elkarrizketatu egin dira, gehienak aurrez aurre, eta, horretarako, Unitateko profesionalak hainbat hiritara joan dira, kasu batzuetan.

Unitateak doako telefono-zenbaki bat (900111025), berariazko helbide elektronikoko bat (atencionvictimas@defensordelpueblo.es) eta ezkutuko zenbakia duen irteera-deien sistema bat izan zituen, lekukotza ematera joaten ziren pertsonen anonimotasuna errazteko.

Unitateko lantaldeak zortzi pertsona izan ditu: koordinatzaile bat, bost teknikari eta bi administrari. Teknikarien profil profesionalak honako hauek izan dira: hiru psikologo (auzitegiko medikuak eta klinikoak), gizarte-langile bat, kriminologo bat eta abokatu eta psikologo sanitario bat. Haien izenak eta profilak txosten osoaren amaieran adierazten dira.

Elkarteen foroa

2022ko abuztuaren 5ean, Herriaren Defendatzailea Eliza katolikoaren eremuko sexu-abusuen biktimen hainbat elkarteri zuzendu zitzaizkien, eta elkarten foro bat eratzeko gonbita egin zuten, biktimen elkarte horietako ordezkariak eta kideak jasandako abusuen aurrean dituzten esperientziak eta jarrerak parteka zitzaizkien. Gonbidapena irizpide inklusibo batekin egin zen, elkarte guztiek beren ahotsa entzunarazi ahal izateko.

Informazio bilketa

Aipatutako bideetatik lortutako informazioaz gain, Aholku Batzordeak Espainiako biztanleei egindako inkesta demoskopiko baten datuekin lan egin du. Inkesta horren helburua Eliza katolikoaren eremuan jasandako sexu-abusuen prebalentzia, inguruabarrak eta ondorioak zehaztea zen, hurrenganako sexu-abusuaren problematika orokorraren testuinguruan. Era berean, Herriaren Defendatzaileak Espainiako Gotzainen Konferentziari (CEE), Espainiako Erlijiosoen Konfederazioari (CONFER) eta bizitza kontsokratuko elizbarrutiei eta institutuei egindako lankidetzaren eskaeratik abiatuta ere bildu da informazioa, haien ordezkariekin bilerak egin baitira.

Herriaren Defendatzaileak laurogei bilera egin ditu hainbat erakunderekin (Aholku Batzordearen hamahiruak eta Elkarten Foroaren laurak barne).

Jasotako informazioa nazioartean dagoen bibliografia ugariak emandako ezagutzatik eta Espainian egindako ikerketaren emaitzetatik abiatuta aztertuta da, eta, horrek, Eliza katolikoaren inguruan egindako sexu-abusuen problematikaz jabetzea, eta haren dimentsio kuantitatiboa eta kualitatiboa, biktimei egindako kaltea eta

beste sexu-abusu batzuekin, bereziki haurrenganako sexu-abusuekin, duen harremana baloratzea ahalbidetu du.

Aholku Batzordeak ezagutu du biktima askok bizi izan duten bakardade-sentimendua gertaerak salatzeo eta lekukotza emateko urratsa eman dutenean, hainbestearino non, askotan, Eliza katolikoaren, gizartearen edo justizia-sistemaren erantzunak eragindako bigarren mailako biktimizazioari aurre egin behar izan baitiote.

Txosten honen bertsio osoan jasotako lekukotzek (III. zatiko 4. kapituluaren muina osatzen dute) abusuek biktima askoren bizitzan izan duten eragina eta kalte pertsonalaren adierazpen desberdinak erakusten dituzte.

Laguntza Unitatearen helburuen artean ez zegoen Eliza katolikoaren eremuan sexu-abusuak jasan dituzten pertsonen kopuru zehatz eta eztabaida ezina ezagutzea. Biktimen kopurua zenbatetsi nahi izateak biktima askoren borondatezko isiltasuna alde batera uztea eta denboraren poderioz desagertu direnak baztertzea ekarriko luke.

Nolanahi ere, Eliza katolikoak berak jasotako kasuen zenbakiak jasotzen dira txostenean (ez dira beti bat etortzen elizbarruti bakoitzarenak eta bizitza kotsakratuko institutuena, alde batetik, eta Espainiako Gotzainen Konferentziak emandako kasu orokorrenak, bestetik). *El País* egunkariaren ikerketa ere kontuan hartu da, baita dokumentu desberdinetan eman dituen datuak ere, eta bere webgunean adierazten duen atzemandako kasu-kopurua.

Elizaren erantzuna

Txosten hau egiteko ahalegin handia egin behar izan da informazioa lortzeko, ezin izan baita datu-iturri guztietara sartu. Elizako ordezkarien lankidetzaren desberdina izan da. Aholku Batzordeak Espainiako Gotzainen Konferentziari eta elizbarruti guztiei eskatu zien informazioa, eta haien aldetik, batez ere biktimei laguntzeko bulegoetan jasotako datuetan eta abusuak prebenitzeko eta horiei erantzuteko protokoloetan oinarritutako erantzunak jaso zituen.

Elizbarruti batzuek lankidetzarako jarrera erakutsi dute, eta ikerketaren helburuetarako datu garrantzitsuak eman dituzte.

Hala ere, adierazi behar da beste elizbarruti batzuek uko egin diotela ikerketa honi laguntzeari. Gotzaindegi batek auzitan jarri du honen oinarria den agindua bera, eta ez du daturik eman. Eta beste batek bi kasu daudela onartu du, baina ez du horiei buruzko daturik eman.

Defentsa-argudioak dio ikerketa beste eremu batzuetako sexu-abusuetara zabaldu beharko litzatekeela edo honek XX. mendearen zati handi batean Elizak Espainian izan duen garrantzi soziala eta boterea minimizatzen duela. Gainera, ez du ematen Elizak delituak ezagutzeko interes berezia duenik, baldin eta delituoien aurrea hartzeko edo erantzuteko orduan erantzukizunen bat izan badezake.

Bestalde, zenbait gotzaindegitan jarrera jakin batzuk hauteman dira, abusu kasuak aitortu eta ikertzeko errezeloa adierazten dutenak. Horren erakusgarri da salaketa batzuek arretarik jaso ez izana, beren artxiboetan salatutako gertakariei buruzko alde aurreko informaziorik aurkitu ez dutenean. Izan ere, beraien ustez, salatzaileek -askotan 60 urtetik gorako helduak direnak- interes faltua dute, kasuak ikertzeko borondatea erakutsi beharrean.

Elizbarrutiko artxiboetan, baita elizgizonen espediente pertsonaletan ere, sexu-abusuei edo sexu-abusuen susmoei buruzko informazioa jasota egotea salbuespenezkoa izan da, eta ia ez da existitzen, baita hainbat biktimak adierazitako erasotzaileen kasuak direnean ere. Elizbarrutien erantzunetatik ondorioztatu behar da ez dela ohikoa izan informazio hori gordetzea. Abusuei buruzko informazioa artxibatzea gotzain bakoitzaren erabakien, datuak gordetzeko izan duen interesaren eta kasuaren larritasunaren araberrakoa izan da. Oro har, soilik jakin ahal izan da erregistratuta dagoela prozedura kanonikoak ireki diren kasuei buruzko informazioa, Estatuko zigor-arloko justiziako prozesuetan eratorri diren kasuei buruzkoa, komunikabideetan eragina izan zutenak edo dagokion udalerrian edo parrokan eskandalua eragin zezaketenak.

Bizitza kontsokratuko institutuei dagokienez, adierazi behar da Erlijosoen Espainiako Konferentziak (CONFER) informazioa emateko jarrera ona duela. Hala eta guztiz ere, hainbat erantzun-jarraibide izan dira institutuen aldetik, eta errealitate oso desberdinak izan dira kide kopuruari, adingabeekin izandako jardueri eta eragin dieten sexu-abusuen salaketei dagokienez, baina baita arazoei aurre egiteko moduari dagokionez ere.

Arazoa aitortzea

Argi dago eliza katolikoan izandako sexu-abusuak arazo sozial eta osasun publikoko arazo larria direla, eta horrek kalte ugari eragin dituela.

Fenomenoaren larritasuna, maila sozialean, biktimek jasandako sufrimenduaren intentsitatearen ondorio izateaz gain, eragindako pertsona kopuruaren eta horiek eta gizartearen zati handi batek ukaezinezko boterea eta autoritate morala izan duen erakunde batean jarritako konfiantzaren iruzurraren ondorio ere bada.

Ez da kasualitatea Elizaren eremuan haurrenganako sexu-abusuaren arazoak diktadura frankistaren urteetan goia jo, eta joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera murrizten hasi izana. Horretan bat datoz inkestaren emaitzak eta Biktimei Laguntzeko Unitateak jasotako lekukotzenak. Fenomenoaren bilakaerak beste herrialde batzuetan gertatutakoarekiko paralelotasuna ere badu, eta fenomeno txikiagotu egin da sekularizazio-prozesuaren eta Elizaren eragin soziala murriztearen ondoren. Prozesu hori Espainian, beste estatu batzuekin alderatuta, atzerapen txiki batekin gertatu zen.

Eliza katolikoan izandako sexu-abusuen arazoak haurrei eta nerabeei eragin die bereziki, eta haurrenganako sexu-abusuaren problematikaren testuinguruan kokatu behar da, eta, zehazkiago, testuinguru instituzionaletako biktimizazioaren testuinguruan.

Hori guztia ez da erakunde batera mugatzen, eta, modu batera edo bestera, adingabeen sozializazio-eremu guztiei eragiten die. Horregatik, botere publikoei ahalik eta arreta handiena eskatu behar

die, biktimentzat dituen ondorio psikiko larriengatik eta ondorio horiek gizartearen orainean eta etorkizunean duten eraginagatik.

Gainera, ingurune instituzional baten gertatzen diren sexu-abusuek bereziki kezkatu behar dituzte erakunde publikoak eta ordezkari politikoak. Abusuak erakunde erlijioso baten eremuan gertatzen badira, kontuan hartu behar dira haien ondorioen espezifikotasuna eta larritasuna, kalte espiritualara tartean.

Era berean, ez da ahaztu behar abusuen eragina ez dela amaitzen adingabeen aurkako delitu-egintzetan; aitzitik, biktima helduekin izandako abusu-kasuak ere serio hartu behar dira kontuan. Kasu horien artean, sexu-abusua kontzientzia-abusuari lotuta ager daiteke.

Arazoaren dimentsioa

Inkesta demoskopikoa

Azaldu den bezala, 2023an Espainiako biztanleriaren lagin zabal bati (8.013 pertsona) egindako inkesta batek emandako datuetan oinarritu da txostena. Horrek antzeko ezaugarriak dituen aurrekari bakarraren emaitzekin alderatzeko aukera ematen du (Osasun Ministerioaren enkarguz 1994an egindako inkesta), eta, gainera, hemen aztertutako problematika espezifikoarekin lotutako galdera gehiago sartu izanaren balioa du.

Inkestak, beste behin ere, haurrenganako sexu-abusuaren arazo larria egiaztatzea ahalbidetu du. Arazo horrek garrantzi handia du Espainian, eta presente dagoen errealitatea da, bai familia-eremuan, bai adingabeak helduekin harremanetan dauden beste sozializazio-gune batzuetan.

Inkesta horrek azaleratu du elkarrizketatutako pertsonen % 11,7 sexu-abusuaren biktima izan zela haurtzaroan edo nerabezeroan (18 urte bete aurretik). Prebalentzia handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 17 eta % 6, hurrenez hurren).

Emaitza horiek 1994ko azterlanarekin alderatzea zaila izan arren, datuek adierazten dute azken hamarkadetan sexu-abusuek behera

egin dutela Espainian, beste herrialde batzuetan egindako azterlanekin bat etorritz.

Inkesta horren arabera, eremu erlijioso batean egindako haurrenganako sexu-abusuak helduen % 1,13ri eragin dio Espainian. Apaiz edo erlijioso katoliko batek egindako abusuen biktima izan ziren helduen ehunekoa txikiagoa da, % 0,6, beste herrialde batzuetan egindako azterlanetan aurkitutako zifraren antzekoa.

Horren arrazoa da erlijio-eremuan abusuak jasandako pertsona batzuen erasotzaileak laikoak izan direla (erlijio-eskola batean irakasle gisa kontratatuak, boluntarioak edo bestelako laguntzaileak), edo gertakariak Eliza katolikoaz bestelako konfesioetan gertatu direla.

Beste herrialde batzuetan gertatu den bezala, gizonetako gehiago daude kaltetuta, biktimen % 64,6 baitira.

Adinari dagokionez, prebalentzia adin gazteenetan murrizteak hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetatik aurrera beheranzko joera dagoela adierazten du, urte horietan gertatu baitziren abusu gehien, beste herrialde batzuetan gertatu bezala. Sexuaren eta adinaren ezaugarri horiek elizgizon edo erlijioso katoliko batek egindako sexu-abusuen alderdi bereizgarriak dira, haurrenganako sexu-abusuen beste adierazpen batzuekin alderatuta.

Inkestak agerian utzi du, halaber, desberdintasunak daudela biktima horien eta beste sexu-abusu kasu batzuen artean, eta erlijio-eremuan biktimizatutako pertsonen maila sozio-ekonomiko handiagoa eta ikasketa-maila handiagoa dutela. Era berean, agerian geratu da abusuak fede erlijiosoan duten eragina; izan ere, eremu horretan sexu-abusuak jasan dituztenen artean, fededun ez direnen ehuneko handiagoa dago.

Inkestako datuek baieztatzen dutenez, salaketetatik abiatuta ofizialki erregistratutako kasuak, Elizaren biktimen arretarako bulegoek ezagutu dituztenak, *El País* egunkariaren ikerketan jaso direnak edo Aholku Batzorde honek berak Biktimei Laguntzeko Unitatearen bidez ezagutu dituenak errealitate askoz zabaldago baten zati txiki bat baino ez dira. Ikerketa biktimologikoen agerian utzi dute biktimek hainbat oztopo gainditu behar dituztela (barnekoak,

pertsonen artekoak, instituzionalak eta sozialak) gertakari horiek salatzen diren orduan; besteak beste, azpimarratzekoak dira babes-falta, estigmatizazioa eta luzaroan egon diren ezkututze-dinamiken ondoriozko presioa.

Arazoa ulertzea

Arazoa behar bezala ulertzeko, dimentsio kuantitatiboa ez ezik, kausak eta ondorioak ere ezagutu behar dira. Sexu-abusuen zergatiak askotarikoak dira. Zalantzarik gabe, lehenik eta behin, pertsona jakin batzuk delitu larri horiek egitera eramaten dituztenak daude; eta, arrazoi hauek, ikasketa espezializatuen xede izan dira.

Baina, arrazoi indibidualetatik harago, gizartea jokabide horiek gertatzea eta, kasu askotan, behin eta berriz, ezkututze- eta zigorgabetasun-ingurune batean gertatzea eragin duten faktoreengatik kezkatu behar da.

Aholku Batzordeak jakin ahal izan du, Espainian eta beste herrialde batzuetan egindako azterlanetatik abiatuta, bai eta Herriaren Defendatzaileak sortutako Laguntza Unitateak bildutako datuetatik abiatuta ere, biktimen lekukotzetan oinarrituta, aukera-faktoreek eta izaera instituzionaleko faktoreek garrantzi handia dutela.

Eliza katolikoaren baitan oso errotuta dagoen klerikalismoa, apaizaren figura Lurrean Jainkoaren ordezkari gisa sakralizatzea, elizgizon askoren bakardadea eta sexualitatearen onarpen problematikoa sexu-abusu horiek gertatzea lagundu ahal izan duten faktoreak dira, haurren eta nerabeen edo nagusitasun psikiko edo espiritualeko harremana duten pertsonen aurreko botere-abusu baten adierazpen gisa.

Eliza katolikoaren sexu-abusuei buruzko ikerketa akademikoak alderdi instituzionala nabarmendu du, Eliza katolikoaren eremuko abusuen arrisku-faktore espezifikoak ulertzeari dagokionez. Faktore horien artean, aurrekoen gain, nahitaezko zelibatua, penitentzia administratzearen praktika eta sexualitatearen nolabaiteko ikuspegia aipatu dira.

Denbora luzez, Eliza katolikoak sexu-abusuak abusatzailearen bekatutzat hartu ditu, abusatutako pertsonari eragindako kaltetzat baino gehiago. Ikusmolde hori gaindituz egin da, duela gutxi izan arren.

2021eko erreformatatik aurrera, zuzenbide kanonikoak ez ditu delitu horiek elizgizonen betebeharrak berezien aurkako arau-hauste gisa definitzen, kaltetutako pertsonen duintasunaren aurkako atentatu gisa baizik. Gaur egun ez dago eztabaidagai adingabeenganako sexu-abusuak delitu larriak direla, eta horiek kalte oso larriak eragin diezazkieketela pairatzen dituzten pertsonen, eta gizarte osoari eragiten diotela; eta, horrek, Elizaren eta Estatuko zigor-arloko justiziaren arteko lankidetzak eskatzen duela.

Sexu-abusuen ondorioak aldatu egin daitezke biktimekin, erasotzailearekin duen harremanarekin eta inguruaren erantzunarekin zerikusia duten hainbat inguruabarren arabera. Kasu askotan, Elizaren eremuko abusuen biktimek beren bizitzetan eragin handia izan duten ondorioei aurre egin behar izan diete, eta ondorio horiek larriagotu egin dira aitortza faltagatik eta sarritan jasan behar izan dituzten estaltze- eta ezkutatzeko-dinamikengatik.

Ondorio horien artean, kalte espiritualari eragiten diotenak nabarmentzen dira.

Adingabeei dagokienez, ikusi da haur batzuek ez dutela eskolara joan nahi, ikaskideengandik isolatzen direla eta ideia suizidak ere adierazten dituztela. Elizarekin lotutako pertsonen abusuak jasan izanaren zantzuak izan eta beren buruaz beste egin zuten adingabeen senideak Herriaren Defendatzailearen Laguntzeko Unitatera joan dira.

Abusuen epe luzeko ondorioak helduarora arte proiektatzen dira kasu askotan, batez ere biktimek ezin izan badute erantzun egokirik aurkitu beren justizia- eta suspertze-premiei dagokienez.

Biktimei Laguntzeko Unitateak jasotako lekukotzak

Laguntza Unitateak 487 biktimari buruzko informazio garrantzitsua bildu du, eta horietako gehienak zuzenean entzun ziren (334).

Gainerakoak zeharkako lekukotzen bidez ezagutu ziren. Bai zuzeneko lekukotzak bai zeharkakoak elkarrizketatuak izan ziren. Txostenak lekukotasun horien zati ugari biltzen ditu, txostenean aurkeztutako hainbat alderdiren irismena berresten dutenak (III. ataleko 4. kapituluak).

Biktima guztietatik, 410 gizonak izan ziren (% 84,19) eta 76 emakumeak (% 15,61). Gehienek 30 eta 75 urte artean zituzten elkarrizketa egin zenean, eta adin-tarterik adierazgarriena 50 eta 65 urte bitartekoa zen, 186 biktimarekin (% 39). Datu hori bat dator abusuak egin ziren hamarkadari buruz jasotako informazioarekin. Horietatik % 97,2k adingabea zen bitartean jasan zituen sexu-abusuak.

Lekukotzek emandako datuetan oinarrituta, abusu mota ohikoena ukituak izan zirela jakin ahal izan da, lau kontakizunetik hirutan agertzen baitira. Masturbazio pasiboko (% 22) eta aktiboko (% 16,2) jokabideak ez ziren hain ohikoak izan. 115 bortxaketa-kasu izan ziren: zehazki, 51 pertsonak adierazi zuten uzki-sartze bidezko erasoak jasan zituztela (%10,47), 46 aho-sartze bidezkoak (%9,45) eta 18 bagina-sartze bidezkoak (%3,7).

Abusuen ondorioak

Lekukotasunek informazio garrantzitsua eman dute txarren ondorioei buruz. Arazo emozionalak eta jokabide-arazoak izan ziren nagusienak, elkarrizketatutako pertsona gehienei eragiten zieten. Pertsonen arteko harreman-arazoak, arazo funtzionalak (adibidez, loa edo elikadura-nahasteak) eta sexu-arazoak jarraitu ziren. Arazo kognitiboak ez ziren hain ohikoak izan, kasutan agertu baitziren. Jasandako abusuen ondorio informatuak zehatzago aztertzean, ikusten da arazo ohikoena bikote-harremanetako zailtasunak direla.

Gainera, zuzenean elkarrizketatutako biktimen heren batek trauma-osteko estresaren sintomak izan zituztela erakutsi zuten, eta heren batek sintoma depresiboak izan zituztela. Halakotzat hartu dira etorkizuneko hutsuneari, itxaropenik ezari eta konfiantzarik ezari, anhedoniari eta, oro har, tristurari buruzko adierazpenak, etengabe

esperimentatuak eta haurtzaroko bizipen horrekin lotutako sentimendu gisa ulertuak.

Kasuen bostetik batean lotsa eta estigmatizazio sentimenduak aurkitu dira. Bi ezaugarri horiek azal dezakete, batez ere azkenak, biktimek bizitza osoan izandako esperientziak kontatzeko duten zailtasuna. Egin dutena zerbait txarra dela sentitzeak, erruduntasunak eta ingurukoak ez bezalako pertsonak direla uste izateak biktima isolatzen laguntzen dute.

Biktimek elkarrizketetan aipatutako beste ondorio batzuk hauek izan ziren: abusuaren bizipenari lotutako ideia suizida, haren ondorioak jasateko ezintasunagatik; autoestimu-arazoak; errendimendu akademiko txikia; fobiak, haserrea eta etsaitasuna.

Aipamen berezia merezi dute substantzien abusuak eta kontaktu fisikoari uko egiteak; kontakizunen % 15ean agertzen dira, eta oso modu mingarrian bizi dituzte kontaketa egiten duten pertsonak.

Kontaktu fisikorako zailtasunari lotutako problematika bereziki azpimarragarria da hurbileko pertsonekin emozio positiboak adierazteko zailtasunari eragiten dionean, hala nola seme-alabekin edo bilobekin.

Biktimek jakinarazitako ondorioak maiz onartu dira gai horri buruz aurretik argitaratutako azterlanetan. Abusuaren biktima izatea gizarte-isolamendu handiarekin eta autoestimu baxuarekin lotu izan da. Eragin hori ulertzeko, abusua bera ez ezik, abusua jasan duen pertsonak jasotzen duen erantzuna ere garrantzitsua da.

Ingurunearen erreakzioaren arabera, haurrak ikusten du sufrimendua eragiten diona ez dela partekatu behar duen edo parteka dezakeen zerbait, eta ezin duela konfiantza izan bera babestu behar luketen pertsonengan, konfiantzaren garapenean kalteak eraginez, askotan helduaroan proiektatzen direnak. Konfiantzak eragina du bere ongizate emozionala berreraikitzeke gaitasunean. Horrek guztiak aukera ematen du ulertzeko zergatik hautematen duten biktimek, kasu askotan, Elizako agintariek praktikatzen dituzten ezkutetzea, ukatzea eta estaltzea, bereziki mingarritzat.

Biktimei egindako elkarrizketetan asko aipatu da Elizarekiko konfiantza eta Jainkoarenganako konfiantza. Gai horiei buruz modu independentean galdetu zen. Gehiengo batek elizarekiko konfiantza galdu zuela esan duen arren, horrek ez zuen beti Jainkoarengan konfiantza galtzea ekarri. Hala ere, azterlan askok ikusi dute lotura handia dagoela eliza katolikoko kide baten aldetik sexu-abusua jasatearen eta horrek fedean eragina izatearen artean. Abusuaren ondorio hori, kalte espirituala deritzona, bereziki mingarria da fededunentzat, bizipen existentzialaren eta osasun mentalaren funtsezko alderdi bat sakonki ahuldu baitezake.

Elkarrizketek, halaber, aldez aurreko azterlanetan abusuaren arrisku-faktore gisa adierazi diren alderdiak azpimarratu dituzte. Elkarrizketatutako pertsonak kontatutako faktoreen artean, honako hauek nabarmentzen dira: gurasoen absentsia (fisikoa edo emozionala), sexu-heziketarik eza, autoestimu baxua, meza-laguntzailea izatea edo erlijio-barnetegi batean bizitzea, eta, neurri txikiagoan, buru-nahasmenduak edo ezintasunak.

Familia-eremuan, kalteberatasun ekonomikoa eta familia oso erlijioso bateko kide izatea balizko arrisku-faktore gisa identifikatu dira. Gainera, erasotzailearekin lotutako faktoreak agertu dira, hala nola alkoholaren kontsumoa edo barne-gatazkak, sakon aztertu direnak sexu-erasotzaile mota horrekin aurretik egindako azterlanetan.

Elizaren erantzuna abusuaren arazoaren aurrean

Eliza katolikoaren erantzunak, maila ofizialean behintzat, denbora askoan zehar arazoa ukatzea edo minimizatzea izan du ezaugarri.

Pixkanaka, kasuak hedatu eta biktimen lekukotzak oihartzun publiko handiagoa lortu ahala, eta Egoitza Santuak emandako jarraibideen ondorioz, Elizaren Espainiako ordezkariak neurri eta jarrera irmoagoak hartu dituzte, baina gehiago bideratu dira prebentziora erreparaziora baino.

Biktima batzuek ukazioari eta ezkutatzeari ez ezik, erakundeko ordezkarien presioei eta erreakzioei ere aurre egin behar izan diete, jasandako abusuen erruduntzat jotzen baitzituzten.

Eliza katolikoa erakunde anitza da, abusuen arazoaren aurrean jarrera desberdinak erakutsi dituzten pertsonak osatua. Hori horrela, Aholku Batzordeak jardunbide egokiak eta txarrak antzeman ahal izan ditu. Joera orokor gisa, azken urteotan arazoaren kontzientzia handiagoa izateko bilakaera barne-protokolo eta -arauak eginez azaldu da batez ere. Protokolo eta arau horiek prebentzian jarri dute arreta, eta zailtasun handiagoa erakutsi dute gertatutakoa zehazteko eta erreparaziora, biktimen arretara eta erakundeen erreformara bideratutako ekintza eraginkorrak zehazteko.

Aholku Batzordearen informazio-eskaerari Espainiako Gotzainen Konferentziak emandako erantzunak oraindik ere zuhertasuna eta mesfidantza ezaugarri dituen jarrera islatzen du.

Lankidetzarako borondate aitortua izan arren, datuak fenomeno minimizatzeke eta erakundearen barruko alderdi marjinal batera mugatzeko moduan aurkeztu dira, arazoaren dimentsio soziala nabarmenduz eta abusu eta estalketa dinamikak bultza ditzaketen barne faktoreei heltzeari uko eginez.

Elizbarrutien eta erlijio-kongregazioen erantzunak aipatu den aniztasunaren isla dira. Gertatutako biktimizazioa dela-eta erakundeari dagokion erantzukizuna beren gain hartzea erabaki dutenen balio indibiduala eta adore instituzionala aitortu behar dira.

Azken urteetan emandako arauak gorabehera, oraindik ere ikusten da arreta eskasa ematen zaiela biktimen eskubide eta beharrei zigor-arloko prozesu kanonigoan, zigor-prozesuko biktimen gutxieneko eskubideei buruzko nazioarteko eta estatuko estandarrak kontuan hartuz gero. Horren erakusgarri da arauaren indarraldia, zeinaren arabera zigor kanonikoak egitatearen larritasunaren eta eragindako eskandaluaren arabera aplikatu behar baitira.

Azpmarratzekoa da, nolnahi ere, Espainiako Apezpiku Konferentziak, 2023an, sexu abusuei buruz emandako Instrukzioak

suposatu duen aurrerapen garrantzitsua, adingabeen kasuei bereziki erreferentzia eginez.

Nolanahi ere, arazo nagusia ez da arau-arloan aurkitu. Zuzenbide kanonikoak abusuen salaketei barne-mailako erantzuna ematea ahalbidetzen duten prozedurak ditu, baina kasu gehienetan salaketei emandako erantzun eskasa edo urria indarreko arau kanonikoak ez betetzearen edo behar bezala ez aplikatzearen ondorio izan da.

Botere publikoen erantzuna

Aholku Batzordea bereziki arduratu da botere publikoek abusuen prebentzioan, ikerketan, zehapenean eta erreparazioan izan duten zeregina ikertzeaz.

Denbora luzez, erakundeak, oro har, ez dira aktibo egon sexu-abusuen errealitatearen aurrean, eta ez dute beharrezko ahaleginik egin adingabeak ikastetxeetan eta beste gizarte-erakunde batzuetan (horietako asko Eliza katolikoaren mendekoak) abusuen arriskutik babesteko, nahiz eta arrisku horren larritasunaren berri izan zezaketen, 1994an Espainiako Gobernuak berak agindutako haurrenganako sexu-abusuari buruzko inkesta egin zenetik behinik behin.

Horrek eragotzi egin du erantzun egokia jaso zezaketen abusu-kasuak detektatzea eta prebenitzea.

Salatutako kasu gehienek, arazoaren errealitatearen zati txiki bat izan arren, ez dute erantzunik jaso zigor-arloko justizia-sistemaren aldetik, neurri handi batean, delitua preskribatzeko arauak aplikatzearen ondorioz. Nahiz eta arau horiek 8/2021 Lege Organikoaren bidez aldatu diren biktima askok gertakariak salatze eta horien ondorioei aurre egiteko behar duten denboraren arazoari aurre egiteko, erreforma-legea atzeraeraginez aplikatzeko debekuak galarazi egiten du bide penaletik erantzutea iraganeko gertaerei.

Era berean, kontuan hartu behar da prozedura penal edo zibil baten bitartez bide judizialek kalte-ordaina lortzeko aukerak beste zailtasun batzuekin egiten duela topo, eta zailtasun horien artean daudela abusatzailearen edo erantzule zibil subsidiariorat jo

daitekeen erakunde baten aurkako prozedura jarraitu ahal izatea, kondena-epairik ez lortzeko arriskua, erasotzailearen heriotza edo preskripzioa. Egoera horrek frustrazio-sentimendua sortu die biktima askori, ezin izan baitute justizia lortu.

Gainera, prozesu judizial zibil baten bidez erreparazioa lortzeko aukera ez da biktima gehienen eskura egon, horrelako prozesuen kostuak eta zailtasunak eta, berriz ere, preskripzioaren arazoa direla eta. Deigarria da, delituaren preskripzioari buruzko arauekin gertatu ez bezala, erantzukizun zibilaren preskripzioa erabakitzeko epeak ez direla legez aldatu.

Hainbat azterlanek agerian utzi dute biktimek praktikan zailtasunak dituztela erreparazio eraginkorra jasotzeko. Azterlan horietan, erantzukizun zibilaren betearazpen judizialean agertzen diren gabezia larriak gainditzeko neurriak hartzea proposatu da.

Auzi honi dagokionez, interes berezia hartu du erantzukizun zibil subsidiarioaren gaiak; hau da, elizbarrutiari, kongregazioari edo beste erakunde bati lotutako pertsona batek delitua eginez gero, hauek kalte-ordaina emateko betebeharra izan dezaketela.

Hainbat epaik mota horretako kondena zibilak ezarri dituzten arren, biktimek oztopo handiak gainditu behar dituzte horiek lortzeko, hala nola akusazio partikularra egin behar izatea. Hori dela eta, positiboki baloratu behar da Estatuko Fiskaltza Nagusiaren oraintsuko jarraibidea (2023), zeinaren bidez ministerio fiskaleko kideei eskatzen baitzaie jarrera irmoagoa izan dezatela erantzukizun zibil subsidiarioaren eskaeran.

Erreparazioa

Adierazitako arazoei gehitu behar zaie biktimek ez dutela eragindako kaltearen erreparaziorik jaso, ez eta erakundeen laguntza nahikorik ere, egun dauden mekanismoen bidez. Horren erakusgarri da delituaren biktimei laguntzeko bulegoetara joan den pertsona kopuru urria, bulego horien jarduna beste delitu-mota batzuen biktimengan oinarritzen baita nagusiki, edo Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak

laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legea aplikatzean egondako gabeziak. Arau horrek, 2021ean eta 2022an egindako erreformak gorabehera, arau- eta erakunde-esparru eskasa eskaintzen du delitu horien eraginpeko pertsonak informaziorako, parte-hartzerako, erreparaziorako, babeserako eta justiziarako sarbidea izateko dituzten eskubideak aseta ikus ditzaten.

Hainbat azterlanetan agerian geratu da 35/1995 Legean aurreikusitako administrazio-prozeduraren bidez sexu-delituen biktimek jasotako laguntza ekonomiko eskasaren arazoa. Aholku Batzordeak laguntza-eskatzaileen kopuru txikiari, eskaeren ezespenehuneko handiari eta laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortu den kasu bakanetan adostutako zenbateko urriei buruzko informazioa lortu du.

Egoera horren arrazoiak ez dira soilik Legearen eskasiak, neurri batean oraintsu zuzendu baitira, baizik eta horiek emateko eskumena duen administrazio-organoaren autonomiarik eza. Horren aurrean, botere publikoek behar bezala hartu behar dute kontuan 2004/80 EB Zuzentaraua, delituen biktimentzako kalte-ordainei buruzkoa, zeinak estatuei eskatzen baitie arau nazionalek segurta dezatela kalte-ordain bidezkoa eta egokia jasandako kalteengatik. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2020ko uztailaren 16ko Epaiak (C-129/19) irizpide bat eman du, zeinaren arabera gaur egun Espainiari emandako laguntzak Europako arau horrek eskatutakoaren oso azpitik baitaude.

Hezkuntza arloa

Bestalde, Aholku Batzordeak egiaztatu du urteetan zehar Estatuak ez duela dagokion erantzukizunaren arabera jokatu dimentsio instituzionala duen eta bere prebentzio-, gainbegiratze- eta kontrol-betebeharren esparruan gertatu den arazo baten aurrean. Hori bereziki garrantzitsua da hezkuntza-sistemari dagokionez.

Hezkuntza zerbitzu publikoa da duela hamarkada batzuetatik. Indarrean dagoen Konstituzioa onartu aurretik, Hezkuntzari eta Hezkuntzaren Erreforma Finantzatzeari buruzko 14/1970 Lege Orokorrak (3.1 artikulua) ezarri zuen hezkuntza «funtsezko zerbitzu

publikotzat» hartu behar zela «ondorio guztietarako». Egiaztatu ahal izan denez, urte haietan gertatu ziren txosten honetan aztertu diren abusu gehienak, eta, urte haietan, Eliza zen Espainiako irakaskuntza pribatuaren kudeatzaile nagusia.

Ondoren, 2/2006 Lege Organikoak ikastetxe publiko eta pribatuen sare bikoitzaren eredia onartu du, eta honako hau xedatu du: «hezkuntzaren zerbitzu publikoa botere publikoek eta gizarte-ekimenak eman dezakete, herritarren oinarrizko eskubideen eta irakaskuntza-askatasunaren berme gisa». Sare bikoitzeko eredu bat ezartzeak ez du esan nahi Estatua ikastetxe pribatuetan egiten den hezkuntzari arretarik jarri gabe egon daitekeenik.

Azken aldian, hemen jorratzen den arazoari erantzun positiboa ematera bideratutako ekimen publiko batzuk egin dira. Alde horretatik, nabarmentzekoa da, alde batetik, Katalunian 2019an Síndic de Greugesek (Kataluniako Parlamentuak izendatutako organoa, erkidego honetako botere publikoen aurrean giza eskubideak babesteko eta herritarrak defendatzeko) sortutako batzordea, eta, bestetik, uztailaren 5eko 24/2022 Foru Legea, Nafarroako Eliza Katolikoaren barruan egindako sexu-abusuen biktimak aitortzekoa.

Nafarroako Lege horrek administrazio-prozedura bat ezarri zuen biktimizek aitortza jaso zezaten. Dagoeneko aitortza ofiziala jaso duten biktima batzuen aldetik balorazio positiboa jaso duen ekimen horrek ondorengo muga du: ez dela aurreikusten biktima-adierazpen administratiboari lotutako inolako konpentsazio ekonomikorik esleitzea, eta, beraz, arlo sinboliko eta moral hutsean geratzen dela.

Prebenitzeko eta konpontzeko beharra

Eliza katolikoan sexu-abusuen arazoa aitortzeak berekin dakar ekintza-maila bikoitzari ekiteko beharra, alde batetik, prebentzioan eta, bestetik, erreparazioan oinarritua. Bi prozesuak lotuta daude. Arrisku-faktoreak ezagutzea da prebentzio-neurriak diseinatzeko oinarria, eta, bereziki, Elizaren barruan erantzukizun- eta lidergo-funtzioak betetzen dituztenei dagokie neurri horiek hartzea.

Ezagunak dira zenbait sektorek, baita biktimen elkarte batzuek ere, haurrenganako sexu-abusu delituen preskribaezintasuna ezarriko duen lege-erreformaren alde planteatutako aldarrikapenak. Zigor Kodea zentzu horretan aldatuko lukeen lege bat ezin izango litzateke aplikatu atzeraeraginezko ondorioekin; beraz, berez, ezin izango lieke erantzun orain arte egindako delituen biktimen justizia-eskaerei.

Hori dela eta, txosten honetan, botere publikoei gomendioak ematen zaizkie, biktimek egia, justizia eta jasandako kaltearen ordaina jasotzeko dituzten eskubideak eraginkortasunez bete ditzaten; alde batera utzi gabe, hala badagokio, horri buruzko beste lege-erreforma batzuk egin ahal izatea, etorkizuneko biktimizazioen prebentzio-alderdietan ardaztuak, biktimek berriz ez gertatzeko bermeen bidezko erreparaziotzat hartzen baitituzte.

Botere publikoen zeregina

Elizaren ingurunean egindako sexu-abusuei erantzutea, batez ere, Eliza katolikoaren betebeharra bada ere, botere publikoak ere behartuta daude beharrezko prozedurak aktibatuzera, delitu horien biktimek egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak izateko eskubidea aseta ikus dezaten.

Horregatik, hezkuntza-eskumena duten erakundeek arduraz jokatu behar dute ikastetxeak ikuskatzeko eta gainbegiratzeko lanetan. Erakunde pribatuek aisialdiaren eta denbora librearen arloan antolatzen dituzten jardueri buruzko eskumena duten sailek ere arreta handiz jardun behar dute.

Erreparazio-betebeharra

Elizgizonek, erlijiosoek, kontratatutako pertsonak edo haien zerbitzura dihardutenek eragindako kalteengatik Eliza katolikoari dagokion erreparazio-betebeharrak gain, Estatuaren betebeharrak bat dago, ez dena soilik elkartasun-betebeharrak orokorretan oinarritzen.

Abusuak ikastetxe batean edo Estatuak gainbegiratzeko betebeharra zuen jarduera baten testuinguruan gertatu diren kasuak

dira. Kasu horietan, kontuan hartu behar da Estatuak erantzukizun bat duela betebehar hori behar bezala ez betetzeagatik.

Elizako sexu-biktimizazioa fenomeno konplexua da. Lehen begiratuan agertzen diren gai praktiko batzuk konpontzen dituzten erantzun azkarretatik heltzeko tentazioa arrisku bat da, askotan, biktimen mina larriagotu egin duena. Hori dela eta, erakunde arduradunen eta botere publikoen hainbat jarduera kontuan hartzen dituen ikuspegitik heldu behar zaio erreparazioari.

Justizia errestitutiboak erantzuna eman diezaieke biktimen beharrei, baina zenbait eskakizun planteatzen ditu, horietako lehena borondatezkotasuna. Prozesu errestitutiboetan parte hartu duten biktimen esperientziek argi eta garbi erakusten dute garrantzitsua dela arreta ematea eta pertsona bakoitzaren egoera bere sakontasun osoan errespetatzea.

Ezagunak dira zenbait sektorek justizia errestitutiboaren prozesuen aurrean adierazitako errezeloak. Horren aurrean, biktimen eta haien premien aniztasuna gogoratu behar dira. Batzuek beren minari ahotsa eman nahi diote eta entzunak eta aitortuak izan nahi dute; beste batzuek, berriz, erakundea adingabeak prebenitzeko eta babesteko egiten ari dena ezagutu nahi dute. Ohikoa da erasotzailea kide izan zen erakundearen edozein erantzunen aurrean arbuioa eta mesfidantza agertzea. Kasu horietan, justizia errestitutiboa bide zilegi eta erabilgarria da horrelako prozesuetan parte hartu nahi duten biktimek justizia lor dezaten. Horretarako, beharrezkoa da biktimek justizia errestitutiboko gune profesionalizatuak izatea, funtzionamendu-estandar gardenak dituztenak, nahi duten biktima guztientzako sarbide unibertsala dutenak eta Elizak finantzatuak.

Konpentsazio ekonomikoa

Konpentsazio ekonomikoa ezin da erakunde baten edo bestearen diskrezionalitatearen mende egon, ez eta balorazio profesional espezializatu bati lotuta ez dauden irizpideen mende ere. Egiaztatu da konpentsazioak zehaztea erakunde erlijiosoen edo haiek kontratatutako profesionalen erabakien mende egoteko arriskua

dagoela, eta horrek desberdintasuna sor dezakeela, abusu-dinamiken parte izan diren opakutasuna, arbitrariotasuna eta isiltasuna errepikatzeaz gain.

Konpentsazioak prozedura arautu baten barruan zehaztu behar dira, profesionalen diziplina anitzeko talde batek osatutako organo independente eta inpartzial baten bidez. Kalte-ordainaren zenbatekoa errestituzio-prozesu baten barruan edo horren osagarri edo ordezkari moduan finka daiteke, kaltearen eta egiaren aitortza, erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermea abiapuntutzat hartuta.

Erantzukizuna bere gain hartzea

Biktimen kaltearen aitortza eta erreparazioa ezin dira erantzukizuna beren gain hartzetik bereizi, ez soilik kaltea zuzenean eragin dutenen aldetik, baita kaltea lagundu, areagotu, ezkutatu edo ahal izan dutenean saihestu ez dutenen aldetik ere.

Eliza katolikoak, gizarteko beste edozein taldek bezala, ezin dio erantzukizun sozialari muzin egin; gainera, berari modu berezian dagokio, lidergo moralala izateko asmoa baitu.

Beste herrialde batzuetako esperientziek erakusten dute erakundeak prozesu horri ekin diezaiokeela, justizia-eskaerei erantzun argi eta konprometitua emateko beharra onartuz, eta, horrekin batera, Elizako kide guztien hezkuntza afektiboa eta intelektuala, batez ere elizgizonena eta pertsona kontsagratuena, nabarmen hobetuz.

Adierazpen publikoak, errudunak zehatzea, barkamena eskatzea, konpentsazioak ordaintzea eta prebentzio-prozedurak ezartzea, beharrezkoak izan arren, ez dira neurri nahikoak. Abusuen salaketan aurreko erreakzioa ezinbesteko jarduketa horietara mugatzeak arazoaren oinarrian dauden egiturak babestea ekar lezake. Kleroa eta ordena eta mugimendu erlijiosoetan erantzukizun hierarkikoak izango dituztenak prestatzea lehentasuntzat hartu behar da, arlo afektibo, emozional eta sexuarekin dauden eskasiak gainditzeko premiari erreparatuta.

Botere publikoek adingabeen babesean dagokien erantzukizunean oinarritutako jarduerak abiarazi behar dituzte, beren osasun fisiko eta mentalerako arrisku-egoerak detektatu daitezkeen egoera guztietan, batez ere hezkuntzaren eremuan, baina baita aisialdiaren eta eskolaz kanpoko edo denbora libreko jardueren esparruan adingabeek helduekin harremana duten beste ingurune instituzional batzuetan ere.

Botere publikoen erantzukizuna da delitu horien biktimek justiziarako eskatzen duten eskubidea aseta ikusten dutela bermatzea. Gogobetetze horrek adierazpen publikoren bat eskatzen du, zeinean, adituek eta independenteek osatutako organo berezi batean aurkeztutako froga-printzipio batetik abiatuta, jasota geratuko baita egitate bat gertatu dela, bidegabea izan dela eta ondorioak jasan dituztenak biktimatzat aitortzen direla, eta, gainera, erreparazioa adosten dela.

GOMENDIOAK

Txosteneko ondorioetatik zenbait gomendio ondorioztatzen dira, gehienak botere legegileari eta gainerako botere publikoei zuzenduak. Laburbilduz, honako hauek dira:

1. Aitorpena

- a) Eliza katolikoaren eremuan sexu-abusuen arazoaren larritasuna eta abusu horien biktima izan diren pertsona guztiei eragindako kaltea onartzea, aitortza eta erreparazio sinbolikorako ekitaldi publiko baten bidez.
- b) Arretarik gabeko eta jarduerarik gabeko denbora luzearen aitorpen publikoa egitea, batez ere 1970 eta 2020 artekoa; izan ere, denbora tarte horretan botere publikoek ez zuten prozedura egokirik ezarri Eliza katolikoaren mendeko

ikastetxeetan adingabeei egindako sexu-abusuak detektatzeko eta haiei aurre egiteko.

- c) Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoaren 37. artikulua jasotzen duen bidea garatzea, sexu-indarkeria une jakin batera mugatu gabe egiaztatzeko moduari dagokionez.
- d) Beharrezkoa da Eliza katolikoak konpromiso publikoak hartzea biktimen aitorpenerako, erreparaziorako eta, beharrezkoa den guztian, erakundeen erreformarako.

2. Prebentzioa

- a) Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren xedapenen erregelamenduzko garapena, adingabeen sexu-abusuak prebenitzeko, detektatzeko eta jazartzeko garrantzitsuak direnean; bereziki, ongizate- eta babes-koordinatzailearen (35.1 artikulua) eta babes-ordez kariaren figurei dagokienez (48. artikulua).
- b) Eremu honetan aplikatu beharreko araudi osoa aldizka berrikustea, bereziki Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legea eta aipatutako 8/2021 eta 10/2022 lege organikoak, bai eta horrekin bat datorren gainerako araudia ere, indarrean dauden arauak prebentzio-, detekzio- eta jazarpen-helburuak lortzen ari diren egiaztatzeko eta erreforma gehigarriak edo aurrekontu-zuzkidura handiagoak beharrezkoak diren baloratzeko.
- c) Hezkuntzako ikuskaritzak ikuskapen eraginkorra egin behar du, ikastetxeek, titulartasun publikoa edo pribatua izan, 8/2021 Lege Organikoan aurreikusitako arauak eta dauden protokoloak betetzen dituztela ziurtatzeko.
- d) Erljio-erakundeek diseinatutako prebentzio-protokoloek eta abusu-kasuen salaketen edo susmoen aurrean jarduteko gidek bat etorri beharko lukete Administrazioak bultzatutako protokoloen aurreikuspenekin.

- e) Era berean, beharrezko baliabideak jarri behar dira elizgizonak edo erlijiosoak diren abusatzaileak indarkeria-mota horretan trebatutako psikologiako profesionalek beste abusatzaile batzuentzat erabiltzen dituzten ebidentzian oinarritutako esku-hartze programekin trata daitezten.

3. Erreparazioa

- a) Aldi baterako organo berezi bat sortzea, –administrazio-prozedura jakin baten barruan– Eliza katolikoaren eremuan haurrenganako sexu-eraso edo -abusuen biktimei erreparazioa emateko, delituaren preskripzioagatik edo beste arrazoi batzuegatik biktimgilearen aurkako prozesu penal bat jarraitu ezin izan den kasuetan. Erakunde publikoen barruan gertatutako abusuen edo gainbegiratze publikoaren mende daudenen kasuan, Estatuak erreparazio-betebehar hori bete dezake, Eliza katolikoaren eremuko abusuei dagokienez, erakunde horrekin lankidetzan edo haren erantzukizunarekiko era subsidiarioan.
- b) Aurreko puntuan aipatutako organo bereziak biktimen aldeko konpentsazioak ordaintzeko estatu-funts bat sortzea, erreparazioa Estuari dagokion neurrian.
- c) Lege bat onartzea, lehen adierazitako erreparazio-prozeduraz gain, adingabeen sexu-eraso eta -abuseu delituetatik eratorritako erantzukizun zibileko ekintzaren preskripzio-araubidea alda dezakeena, aipatutako 8/2021 Lege Organikoan delituaren preskripzio-epea zenbatzeko ezarritako irizpideak hartuta, eta, horrela, legea indarrean jarri aurreko kasuei dagokienez kalte-ordainak judizialki erabaki ahal izatea.
- d) Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza publikoei buruzko 35/1995 Legearen erreforma, sexu-delituengatik kalte-ordainen zenbatekoak Europar Batasuneko estandarretara egokitzen direla ziurtatzeko, eskaerei adituek eta independenteek osatutako organo batek erantzuten diela bermatzeko eta prozedura biktimen beharretara egokitzeko.

- e) Justizia errestauratiboko prozesuak errazteko beharrezkoak diren lege-erreformak bultzatzea, profesional espezializatuen bidez prozesu horietan borondatez parte hartu nahi duten biktimei erreparazio-bide bat eskaini ahal izatea ziurtatuz, eta sexu-delinkuentziaren eremuan aplikatzeko egun dauden oztopoak kenduz.

4. Biktimei laguntzea

- a) Lege-aldaketa egokiak, sexu-indarkeriaren biktimea guztiek, sexua eta sexu-identitatea edozein direla ere, laguntza integral espezializatu eta irigarria jasotzeko eskubidea izan dezaten, indarkeriaren ondorio fisikoak, psikologikoak, sozialak edo bestelakoak gainditzen laguntzeko.
- b) Epailiek eta fiskalek lehenetsuna eman behar diote horrelako delituek eragindako pertsonak entzuteari, eta ziurtatu behar dute preskripzioz prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenak aurrez aurre jakinarazten direla, haien irismena eta zigor-arloko prozesu judizialek kanpoko beste bide batzuk daudela argi eta garbi azalduta.
- c) Administrazio eskudunek bermatu behar dute delituaren biktimei arreta emateko bulego publikoek arreta integrala emango dietela (arreta psikologikoa, juridikoa eta soziala barne) sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei, eta, bereziki, ikastetxe edo erlijio-zentroetan adingabeak izanik jasan dituztenei.
- d) Beharrezkoa da koordinazio-mekanismo bat ezartzea Eliza Katolikoaren adingabeak babesteko eta abusuak prebenitzeko bulegoen eta Justizia Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako gobernuen mendeko delituen biktimei laguntzeko bulegoen artean.
- e) Eliza katolikoak beharrezkoak diren neurriak jarri behar ditu sexu-abusuaren biktimei beren errekupeazio-prozesuan laguntzeko, kasu historikoetako, preskribatuetako edo erasotzailea edo biktimea hil den baina haren familiak arreta behar duen kasuetako biktimei tratamendua eskainiz. Biktimak

askatasunez aukeratu behar du profesionala, eta haren laguntza, beharrezkoa denean, kaltetutako senitartekoei ere eman behar zaie.

5. Prestakuntza eta ikerketa

- a) Adingabeen arreta psikologikoan, sozialean edo hezkuntzan diharduten profesionalen elkargo ofizialek prestakuntza espezializatua eskaini behar diete erlijio-eremuan gertatutako abusuen biktimekin esku hartzen duten profesionali, fedearen garrantzi psikologikoari eta sexu-biktimizazio mota horrek eragindako kalte espiritualari buruzko alderdiak jorratuz.
- b) Botere publikoek arau-aurreikuspenak betetzen direla bermatu behar dute, bereziki aipatutako 8/2021 Lege Organikoan jasotakoak, adingabeekin harremanetan dauden profesional guztiek sexu-abusuei buruzko prestakuntza egokia jasotzeko beharrari dagokionez, bereziki ikastetxeetan, titulartasun publikoa edo pribatua izan, eta beste erakunde batzuetan.
- c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta abokatuena eta prokuradoreen elkargoek karrera judizialeko eta fiskaleko kideen eta aipatutako profesionalen prestakuntza eta sentsibilizazio egokia zaindu behar dute, hemen jorratutako problematikari dagokionez.
- d) Elizbarrutiek eta bizitza kongsakratuko institutuek artxiboetako informazioa eskuratzeko aukera eman beharko liekete ikertzaileei. Era berean, *delikta graviora* dokumentazioa gordetzen duten artxiboen eta eliza-auzitegiko artxiboaren berrikuspen osoa egin beharko lukete, adituen parte-hartzearekin.
- e) Elizak Espainian dituen erakunde erlijiosoen ahalik eta arreta handiena eskaini beharko liekete bai kideak hautatzeko prozesuei, bai abusuak hautemateko duten prestakuntzari. Era berean, abusuen aurrean dituzten protokoloen eta prozedura kanonikoen aplikazioaren jarraipena gainbegiratu beharko lukete, baita biktimei ematen zaien harreran, laguntzan eta aholkularitzan ere.

Azken gogoeta

Txosten honen ondorioek, hemen laburbilduta, eta ondorengo gomendioek ez dute azken hitza izan nahi. Eta, are gutxiago, behin betiko irtenbide bat edo amaiera puntu bat, hainbeste pertsonari aspalditik eragin eta eragiten dion kalte handi baten aurrean. Aitzitik, Espainiako gizarteak duela urte batzuk hasitako kontzientzia hartzeari lagundu nahi diote, Eliza katolikoari eta botere publikoei gogoraraziz eta eskatuz oraindik ere irekita dagoela biktimei erantzun bat emateko beharra.

«Diputatuen Kongresuak herriaren defendatzaileari, Gorte Nagusiek oinarrizko eskubideak defendatzeko izendatutako goi-komisarioari, agindu dio bera buru izango duen Batzorde independentea eratzeko, bera buru dela, Eliza Katolikoaren esparruan sexu-abusuen salaketei eta botere publikoen rolari buruzko txostena presta dezan».

Diputatuen Kongresuak 2022ko martxoaren 10ean emandako agindua



www.defensordelpueblo.es